

info ► Kaixo!-ren inkesta

Euskaldunen nabigatzeko ohiturak agerian

KAIXO! BILATZAILEAK PASA den abenduan eta urtarilean egindako inkestaren datuak banatu ditu. 1.165 lagunek erantzun dute Aitor Lopez de Aberasturiren webgune ezagunean jarritako galdetegia, eta, beraz, Interneteko erabileraren gaineko analisi nahiko zorrotza ematen du inkestak. Kaixo!-ren ekimenak, gainera, Eustat EAEko Estatistika Institutuaren laguntza eduki du.

Euskaldunen Interneteko erabilerari buruzko datu interesgarriak ere badakartzate emaitzek. Datu kezkarriren bat ere bai, bide batez. Izan ere, Kaixo-ren inkesta erantzun duten internauten artean, multzo handi batek euskaraz badakiela erantzun du, baina ondoren bisitatzen dituzten orrialdeen artean, euskarak oso espazio txikia duela ikusten da.

1.100 inkestatuen artean, %43k erantzun du euskalduna dela. Euskal Herriko euskaldun portzentaiaren goitik dago hori. Hala ere, internautek bisitatzen dituzten orrialdeetan, soilik %5.6 internautak nabigatzen dute euskarazko orrietan.

Euskarazko edukien auzia

Itxura batean, badirudi euskaraz nabigatzeari muzin egiten diotela internauta euskaldunek, baina beharbada portzentaia murriztzen hori (%5.6) beste gabezia baten adierazgarri da: ez dagoela

euskarazko edukirik. Kaixo!-ko inkestaren beste datu batek bigarren hipotesi horretara hurbiltzen gaitu hain zuzen. Izan ere, Lopez de Aberasturik sarean jarritako galdetegiak bi bertsio zeuzkan, gaztelaniazkoa eta euskarazkoa, eta portzentaia handi batek euskarazkoa bete zuen zuzenean. Datu hau ez da argitaratu inkestako emaitzen artean, baina Lopez de Aberasturik EGUNKARIA-ri baieztatu dio: %33 galdetegi euskaraz bete zituzten internautek. Alegia, %43 inkestatu euskaldunak badi-ra, eta inkesten %33 euskaraz bete badira, horrek esan nahi du internauta euskaldun gehienek euskarazko orrira jo dutela.

Alegia, euskarazko edukietan klik egiteko aukera baldin badute, internauta euskaldun gehienek hartara jotzen dutela dirudi. Aukera berdintasunean emanez gero (Kaixo!-ko inkestak egin duen bezala), hala gertatu da behintzat. Beste webgune batzuetan, berriz, badakigu zer gertatzen den: lehenbiziko orria erdara hutsean dator; eta guztiz kargatu arte itxaron behar duzu beharba-

garatu den adierazten du horrek seguru aski.

Beraz, lanean diharduen jendea dira internauta gehienak. Eta ez hori bakarrik, gehiagok nabigatzen du lanetik (%42) etxetik baino (%39). Gainera, Internet erabiltzeko arrazoia nagusia lanarekin erlazionatua dago (%46), eta horren atzetik dator «erabilera pertsonala» (%39).


Bestalde, badi-rudi euskal internautek dezente darabilte Internet: %64k egunero egiten dute konexioa, eta horien artean gehienek egunero behin baino gehiagotan. Konexio denborari dagokionez ere, «ordu bate-tik laurako tar-tea» aipatzen dute erantzun gehienek (%41). Eremuei dago-kenez, ia guz-tiek oso sarri

darabilte posta elektronikoa eta WWW edo amarauna. News edo berri-taldeak, ber-riz, gutxiren interesekoak dira nonbait, eta chat edo berri-riketak, gutxiagorenak.

Inkesta bete duten gehienak Bizkaikoak izan dira (%44), eta oso erantzun gutxi etorri da Nafarroatik (%3.24) eta are gutxiago Iparraldetik (%0.38; hau da, lau internauta besterik ez). Horrek gehiago esaten du seguru aski Kaixo bilatzaileak duen audientzia, euskal internauten banaketa demografiko eta geografikoaz baina.

Azkenik, inkestatuen %90 baino gehiago Microsoften eskuetan daude. Macintosh-etan %6 besterik ez dabil-tza, eta geratzen diren apurrak Sun eta Unix sistema bitxi-tako erabiltzaileak dira... Beste datu jakingarri mordo-a ere badago inkestan, he-men baino zehatzago azaldu-ta, eta Kaixo-ren gunean ikustea duzu onena.

► Kaixo! inkestaren emaitza
<http://www.kaixo.com/encuesta/indexe.htm>



Makroinkestako bi gazta, sexuaren eta euskararen ezagutzaren araberakoak.

da, ikurrin txiki batean klik egin eta euskarazko bertsiora iristeko. Bidea horrela zailduz gero, jakina da askok gutxiago ikuskatuko dituztela euskarazko orriak.

Lanetik konektatuta gehienbat

Inkestak beste datu interesgarri mordo-a ere badakar, hizkuntz jokabideari dago-kionaz gain. Lau internauta-tik hiru gizonezkoak dira inkestatuen artean, eta beste herrialde batzuetan atera di-tuzten ondorio kezkarri samarrak baieztatzen ditu datu honek. Internet «mas-kulinoegia» dela, nonbait. Adinari dagokionez, gazteak dira euskal internautak: %41k 21 urtetik 30era dute, eta 31tik 40ra beste %32k. Gazte asko dagoen arren, ikasleak ez dira hainbeste: %20. Unibertsitate eta ikas-tetxeetan tresna zein gutxi

info

Ziberlehiaketa aitzindaria?

Informatica Vasca aldizkari elektronikoa propaganda handia eman dio antolatutuen ziber-lehiaketa bati (*Nor da nor*), iragarritz «Interneteko euskarazko lehenengo jokoa» dela hori. *Euskararen Berripapera* aldizkariak ere aitortu dio *Informatica Vasca*-ri aitzindaritza hori. Hala ere, informazio okerra da. Ez da egia lehenbiziko jokoa horixe izan dela. Laburtzapenak ematen dituen Laburkiz webguneak ere antolatu zuen lehiaketa bat bere garaian; baita Su ta Gar-taldearen webguneak ere (argazkiak erabiliz, *Informatica Vasca*-k bezala); eta *Argia* aldizkariak, behin baino gehiagotan, kasu honetan. Nori berea, beraz. *Informatica Vasca* gaztelaniazko medioa da, baina azkenaldi honetan euskarazko artikuluak sartzen ere hasi da.

► Informatica Vasca
<http://www.ivasca.com>

Tresnak

Nabigatzaile sinple bat

Navigator eta Explorer-en bertsio berriak gero eta triki-mailu gehiagorekin datoz, gauza gehiago egiteko gai dira eta abar... baina gero eta espazio eta memoria gehiago okupatzen dute ordenadorean. Zuk nahi duzuna web orriak azkar eta ego-ki irakurtzea bada, *browser* edo arakatzaile sinple batekin nahikoa duzu. Horieta-koa da WanaBe izenekoak: 800 Kb okupatzen ditu disko-an, eta apenas RAMik lanean. Gero, ez irudirik, ez tau-larik, ez kristorik, baina tes-tua ikuskatu, kopiatu eta gor-detzeko Explorer edo Navigator baino hobea, ziur egon zaitezke. Sekulako abiadu-ran, gainera, eta dohainik. Hori bai, Macintosh erabil-tzen duten gutxiengo eskisi-to horrentzat bakarrik.

► WanaBe
<http://pluto.njcc.com/~dtp/wb2/wannabe.html>

ZURE DENDA BIRTUALA



www.jalgi.com/megadenda